

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

A eredua

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu.
- **2h 30 min.** dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

Proben ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa (gehienez)	Puntuazioa (gutxienez)
<p>IRAKURMEN PROBA</p> <p>Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</p> <p>Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</p> <p>Lehenengo eta hirugarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta bigarrenean 0,4 puntu.</p> <p>Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</p> <p>Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</p>	50-60 min.	20	10
<p>IDAZMEN PROBA</p> <p>Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu).</p> <p>Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</p>	90 min.	30	15

- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da.**
- **Ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan** egin.
- **Irakur itzazu** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

3. HE

IRAKURMENA

■ 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Hipoteka ez ordaintzeagatik ugaritu diren desjabetzeen aurretik ere, datuak ez ziren makalak: Etxebizitzaren Aldeko Elkartearen arabera, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, etxe hutsak 2009an etxe guztien ia %25 ziren. Nafarroan, ordea, 2010ean, etxe hutsak etxe guztien %12 ziren Sustapen Ministerioaren arabera, eta urte berean EAEn pisu hutsak 75.000 inguru zirela adierazi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordeak, %18, alegia. Batzorde horrek berak eskaera ere kalkulatu zuen: 75.000 etxe inguru behar ziren guztira EAEn. Beraz, eskaeraren eta etxe hutsen datu ofizialak parekoak izanik, norberak atera ditzala ondorioak.

Etxebizitza izateko eskubidea aldarrikatzen duten mugimenduek argi dute: alokairu publikoa edo soziala da irtenbidea. Jabetza publikoa izan behar dute etxebizitzek, alokairu publikoan eskaintzeko herritarren beharretara moldatuko diren baldintzetan. Gaur egun, berriz, oso bestelakoa da errealitatea: bai merkatu librean, bai babes ofizialeko etxebizitzetan, jabetza pribatua da nagusi. EAEn, esaterako, eraikita dagoenaren %91 jabetzan dago eta %9a alokairuan; bada, %9 horren erdia baino gutxiago, hau da, %4 inguru baino ez da alokairu publikoa.

Legea ere alde du jabetzak, etxearen jabe direnentzat kenkariak onuragarriagoak direlako alokairuan bizi direnentzat baino. Areago, etxe hutsak bultzatzen ditu legeak berak. Eraikitzen diren etxe berrien %10 hutsik geratuko direla aurreikusten du Lurralde Antolamenduak: tokian tokiko plan orokorra prestatzerakoan, zenbat lur beharko den kontuan hartzeko garaian, etxebizitza hutsak hartzen dituzte aintzat, eta lur horretan X etxebizitza behar badira, X + %10 eraikiko dituzte. «Hortaz, lurzoru gehiago kontsumitzen da, ingurumenarentzat eta herriarentzat horrek dakartzan kalteekin», kexu da Amaia Elorza, *EtxebizHitza* plataformako kidea.

Iparraldean legeak dio etxeen %20 bideratu behar dela etxebizitza publikoetara 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan. Etxebizitza publiko horiek, dena den, salmentakoak nahiz alokairukoak izan daitezke. Egoera oso bestelakoa da Europako herrialde askotan: ohikoa da etxebizitzaren %50 baino gehiago alokairu soziala izatea edo alokairua, «baina alokairu pribatua ere merkea da: gurean alokairua ez dago erregulatuta eta merkatuan jabeak ezarritako baldintzen menpe dago, prezio oso altuak ditu; atzerrian, aldiz, alokairua araututa dagoelako edo merkatua ez delako jabetzara bideratu, prezioak askoz baxuagoak dira, eta beraz, pribatua ere eskuragarria eta arrazoizkoa da ekonomikoki - azaldu digu Elorzak-. Hemen, 800-900 euroan dago alokairu-prezioaren batez bestekoa; baina, zeinek ordaindu dezake horrenbeste, batik bat gaur egun?». *Elkartzen* gizarte mugimenduaren ustez, adibidez, alokairuan sartzegatik herritarrak gehienez bere diru-sarreraren %15 ordaintzea finkatu beharko luke legeak.

Zein neurri jarri daitezke martxan hutsik dauden etxebizitzetara erabilgarritasuna eman eta alokairu sozialean jartzeko? Hiru jabe mota desberdinak behar ditugu lehenik: pisu hutsa duen jabe partikularra, etxe ugari dituzten jabe handiak, eta administrazio publikoaren esku dauden eraikinak. Jabe partikularrak, etxea hutsik badu, alokatzeko betebeharrak morala duela uste dute elkarre batzuek. Amaia Elorzak ere ez du zalantzarik: «Gaur egun sakratua da jabetza pribatua, eta pisua hutsik izan nahi duenak hala mantentzeko, baina denok etxebizitza izateko eskubidea dugun neurrian, alokatu nahi ez duen jabeak zigorrak jarri behar zaizkio. Kasurako, ondasun higiezinaren gaineko zergak igo, hain erosoak izan ez dadin hutsik duen bigarren etxeari erabilgarritasunik ez ematea. Karga hori jarrita ere, hutsik mantendu nahi badu jabeak, plataforman uste dugu Administrazioak aldi baterako desjabetzea jarri beharko lukeela martxan, pertsona horri etxearen gaineko eskubidea kendu beharko liokeela denbora batez, Administrazioak berak alokairu sozialean jartzeko».

1. **Desjabetzeak hasi baino lehenago zein zen Euskal Herrian zegoen egoera?**
 - a) Ipar Euskal Herrian 2009an etxebizitzaren kopurua etxe guztien herena zen.
 - b) 2010ean Nafarroan zenbatu ziren etxe guztien %12 etxe alokatuak ziren.
 - c) EAEko etxe hutsen eta jendearen eskaeraren kopurua berdina zen 2010ean.
2. **Zer ondorio atera daiteke zenbait erakundek emandako emaitzetatik?**
 - a) Euskal Herriko iparraldean etxe hutsen kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan baino altuagoa dela.
 - b) Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan etxe hutsak Nafarroako erdiak direla.
 - c) Iparraldekoen eta Hegoaldekoen artean ez dago alderik, etxe hutsen eta eskatutako etxebizitzaren kopurua antzekoa baita.
3. **Zer eskatzen dute etxebizitza izateko eskubidearen aldeko mugimenduek?**
 - a) Jabetza mota gorabehera, alokairuaren alde egin beharko litzatekeela.
 - b) Alokairua zein den kontuan hartuta, jabetza publikoa nahiz pribatua proposatzen dute.
 - c) Etxebizitzek, bai jabetza, bai alokairua publikoa izan behar dutela.
4. **Zein da gaur eguneko egoera etxebizitzaren kasuan?**
 - a) Merkatu librean zein babes ofizialeko etxebizitzetan jabetza publikoa da nagusi.
 - b) EAEko alokairu publikoa ez da heltzen alokairuan dauden etxe guztien erdira ere.
 - c) Euskal Herrian alokairuan dauden gehienak alokairu sozialean daude.
5. **Zenbait mugimenduk diotena diotela, legeak zer babesten du?**
 - a) Alokairuan dagoenaren alde egin beharrean, etxearen jabe dena babesten du legeak.
 - b) Legea bata edo bestea izan, zergen kenkariak mesede handiagoa egin diezaiokete alokairu publikoaren jabe denari.
 - c) Legeak ez du bereizketarik egiten jabeen eta maizterren artean.
6. **Bat al datoz Lurralde Antolamenduak aurrez ikusitakoa eta Elorzaren ikuspuntua?**
 - a) Bai, bien ustetan, etxe berriak eraikitzeke orduan, etxebizitza hutsak ez direlako kontuan hartu behar.
 - b) Bai, Lurralde Antolamendua zein Elorza lurzoru gehiago erabiltzearen alde agertzen direlako.
 - c) Ez, Elorzaren iritziz, ingurumenaren eta herriaren kalterako baino ez delako lurzoru gehiago erabiltzea.
7. **Nola jokatzeko dute Europako herrialde askok etxebizitzaren auziaren aurrean?**
 - a) 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan etxeen ia herena etxebizitza publikoetara bideratzen dute.
 - b) Etxebizitzaren erdia baino gehiago alokairu publikokoa izan ohi da.
 - c) Etxebizitza publikoak salmentakoak zein alokairukoak izan daitezke.
8. **Zer dio Elkartzeko gizarte-mugimenduak alokairuez?**
 - a) Legez guztiok dugula etxebizitza izateko eskubidea, alokairuaren %15 ordainduta.
 - b) Maizterrek asko jota diru-sarreraren %15 ordaindu beharko luketela.
 - c) Legeak herritarren soldataren herena finkatu beharko lukeela horretarako.
9. **Zer neurri hartuko lukete Elorzak eta plataformakoek etxebizitzaren arazoaren aurrean?**
 - a) Jabe partikularra etxe hutsa alokatzera behartuko lukete.
 - b) Etxe askoren jabe dena eta alokatu nahi ez duena behin betiko desjabetuko lukete.
 - c) Etxea hutsik izan eta alokatu nahi ez duenari dagokion zerga igoko liokete.

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

INTERNETEKO KOMUNIKAZIOEN SEGURTASUNA: KONFIDENTZIALTASUNA

Posta elektronikoan, webean nabigatzen, nahiz Interneten beste zerbaitetan ari garela, informazioa bidaltzen dugu; abiapuntutik helburura iristeko informazio hori puntu askotatik igarotzen da: gure ordenagailutik edo bestelako gailu digitaletik aterako da, bideragailuren batetik pasatuko da (enpresako sareko routerretik, etxeko edo tabernako wifikotik...), gero Interneteko 1 iritsiko da, eta handik oraindik beste puntu asko pasatuko ditu helmugara iritsi arte. Tarteko puntu horietako edozeinen kontrola duenak aise atzeman dezake informazioa: enpresako informatikariak, tabernako jabeak, Interneteko zerbitzua ematen duenarekin 2 dagoen poliziak edo baita wifidun ordenagailu bat hurbil duen edozeinek ere.

Sareko komunikazioen zati handi bat (webeko nabigazio gehiena, posta-jasotze eta posta-bidaltze asko) irekian doa, edozeinek atzemateko moduan. Baina Internetek baditu mekanismoak informazio sentibera garraiatzeko; 3, kreditu txartelen datuak, posta elektroniko sekretuak edo 4. Informazio hori guztia modu seguruan egiten da, intimitatea eta konfidentzialtasun osoa 5. Kriptografia erabiltzen da horretarako, 6, mezuak enkriptatuz (kodetuz edo zifratuz) jasotzailea ez den edozeinentzat ulertezin bihurtzen dira. Zehazki, kriptografia mota berezi bat erabiltzen da Interneten: gako publiko bidezko kriptografia edo kriptografia asimetrikoa.

Mezuak enkriptatzeko sistema asko erabili izan dira historian, batez ere errege, jeneral eta bestelako agintarien arteko komunikazio garrantzitsuetarako, baina baita maitaleen arteko amodio-mezu sekretuetarako ere. Hasieran metodo sinpleak ziren gero eta konplexuagoak dira, teknologiak horretarako bidea eman ahala eta aurreko sistemak hausteko 7 aurkitu ahala. Historiako enkriptatze-metodo ezagunen eta erabilienean artean honakoak izenda genitzake: Zesarren zifra, Vigènere-ren zifra eta errotore-makinak. 8, enkriptazio-sistema horiek denak printzipio berean oinarritzen dira: mezua funtzio baten bidez 9 da, gako bat erabiliz, eta jasotzaileak gero alderantzizko funtzioa aplikatzen du gako berarekin jatorrizko mezua lortzeko. Adibiderik sinpleenean, funtzioa kenketa izan daiteke eta gakoa 1 zenbakia. 10, «IBM» mezua «HAL» bihurtuko litzateke letra bakoitzari «-1» funtzioa aplikatuz aurreko letrarekin 11 badugu, eta jasotzaileak, gakoa (1 zenbakia) jakinda, mezu zifratuari «+1» funtzioa aplikatuta, «IBM» lortuko luke berriro. Horri kriptografia simetrikoa deitzen zaio, gako bera erabiltzen duelako enkriptatzeko eta desenkriptatzeko.

Sistema horiek gero eta apurtezinagoak dira, zifratze-funtzioa gero eta konplikatuago egin dutelako, garai bakoitzeko teknologiaren laguntzarekin. 12 kriptografia egiteko ordenagailuak erabiltzen dira; haiei esker, aipatutako funtzioak oso konplexuak eta gakoak oso luzeak izan daitezke, sistema erabat 13 garatzeko modukoak. Hartara, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak erabiltzen duen zifraketa, kriptografia simetrikoko sistema da. Baina horrelako sistemek arazoak ematen dituzte Interneten nabigatzeko, online erosteko edo posta elektroniko pribatuak bidaltzeko orduan: bi aldeek ezagutu behar dute gakoa eta beste inork ere ez. 14, ezin da beti gako bera erabili, gako desberdin bat behar da jasotzaile eta bidaltzaile bakoitzeko; eta gako hori beste inork jakin ez dezan, ezin da Internet bidez bidali, jakina, lehen esan bezala, atzeman egin baitaiteke. 15, kasu batzuetan, gobernuen kasuetan esaterako, mezulari bidez bidal dakioke gakoa komunikazioa nahi duen erakunde bakoitzari. Baina Interneteko komunikazioen kasuan, denda eta bezero bakoitzeko, webgune eta 16 bakoitzeko, posta elektronikoaren bidaltzaile eta jasotzaile bakoitzeko, lehenago gako bat aurrez aurre partekatu behar izatea edo mezulari bidez bidali behar izatea ezinezkoa da praktikan: oso garestia da, eta 17, ez da batere segurua (mezulariak ustelduta egon daitezke edo gakoa 18 egin diezagukete bidean).

LETURIA, Igor. Elhuyar aldizkaria, 2013ko otsaila. Egokitua.

3. HE

IRAKURMENA

■ 2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia.

1. a) sustatzailearengana
 b) laguntzailearengana
 c) ekintzailearengana
 d) hornitzailearengana

2. a) kargu hartuta
 b) aintzat hartuta
 c) aldean hartuta
 d) elkar hartuta

3. a) esaterako
 b) berriz
 c) apika
 d) alegia

4. a) eleak
 b) pasahitzak
 c) iruzurrak
 d) harremanak

5. a) ugalduz
 b) samurtuz
 c) arinduz
 d) bermatuz

6. a) hau da
 b) adibidez
 c) bestalde
 d) haatik

7. a) eragozpenak
 b) aldarrikapenak
 c) baliabideak
 d) bizipenak

8. a) Osterantzean
 b) Hurrenez hurren
 c) Funtsean
 d) Orduan

9. a) astintzen
 b) laudatzen
 c) eraldatzen
 d) ihartzen

10. a) Hala
 b) Ondoren
 c) Geroztik
 d) Halaber

11. a) alderatzen
 b) ordezten
 c) ezartzen
 d) amiltzen

12. a) Bidenabar
 b) Behinola
 c) Harrezkero
 d) Gaur egun

13. a) herdoilduak
 b) indargeak
 c) hauskaitzak
 d) lizunak

14. a) Hala eta guztiz
 b) Horrez gain
 c) Horretaz
 d) Adibidez

15. a) Horiek horrela
 b) Izan ere
 c) Hots
 d) Batez beste

16. a) ikuskari
 b) bisitari
 c) zabalgunek
 d) itzalgune

17. a) gainera
 b) aldiz
 c) behintzat
 d) aitzitik

18. a) suspertu
 b) lurperatu
 c) ostu
 d) eraiki

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IRAKURMENA

■ 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

BEHARREZKOA AL DA AINTZAT HARTZEA?

Hiru seme-alaba ditut, eta, behar dudanean, nire ahizpetako batek beti laguntzen dit, eskuzabaltasunez eta aurpegi ona jarrita. Ahizpa horri beti egin izan dizkiot oso opari onak. Zergatik? Zertarako? Lehenengo eta behin, esker onez, urte hauetan guztietan nire seme-alabak oso ondo zaindu dituelako. Eta bigarrenik... inbertsio gisa, ahizpa horrekin harreman ona izaten jarraitzeko eta aurrerantzean ere nire seme-alabak zaintzen jarrai dezan. Esker ona sentitzen dugunean, normalean jakinarazi egiten diogu beste pertsonari haren jokabideak balio handia izan duela guretzat. Beste batzuetan, besteak esaten edo egiten duena eredugarria denean edo harengandik zerbait ikasten dugunean ere, aintzat hartu beharra sor liteke. **1**

Administrazio publikoko sail batean, duela hainbat urte, "irizpen positiboa" izeneko lan-metodo baten bidez, elkarrizketak egin zitzaizkien langileen %100i, eta galdetu zitzaaien haien ibilbide profesionalean noiz hartu zituzten aintzat. Elkarrizketatzaileak konturatu ziren aintzat hartzeaz ari zirenean, beste zerbait esan nahi zutela langileek: «Guk nahi duguna hauxe da: informatu, entzun eta kontsultatu diezagutela, lanaren edukiak esanguratsuak izatea, lanak esleitzean berdintasunez tratatzea, profesional gisa errespetatu gaitzateela, eta abar». **2**

Aintzat hartzea kasu egitea da, hitzez edo beste moduren batean, onerako zein txarrerako, eta nahita egindakoa izaten da betiere; eta horren bidez, dagokion pertsona horri niretzat garrantzitsua dela erakusten diot; pertsona bera, eta baita pertsona horren lana edo ardura ere. Aintzat hartzeak ageriko ahalmena dauka harreman profesionalak hobetzeko eta pertsona gisa hazteko. Beste pertsonari bere nortasun publikoa hobeto ezagutzeko aukera ematen diogu; hau da, guretzat zer irudi duen, haren jokabideaz zer balorazio egiten dugun. **3**

Pertsonari eta pertsona horrek egiten duenari kasurik ez egitea, onerako zein txarrerako, bere jokabidea kritikatzeko, edo ekintza zehatz batzuk edo pertsona bera kritikatzeko baino txarragoa da. Aintzatespena agertzen dugunean, bestearekin lotzen gaituen enpatia-korrante bat sortzen dugu, harremanak hobetzen dira eta haztea bultzatzen dugu. **4**

Zergatik ez dugu aintzat hartzen?

Batzuek sekula ez dute inor aintzat hartzen edo ez diote inori esker onik azaltzen; beste batzuek oso gutxitan egiten dute, eta, azkenik, beste batzuek modu baldarrean egiten dute, edo sasoz kanpo. Profesional batzuen usteek eragotzi egiten dute aintzatespena: «Ondo egindako lanagatik zoriontzen badut, lasaikerian eroriko da»; «Ez dago zertan zoriondu, bere betebeharra da, horretarako ordaintzen zaio». Horrelako egoerak aurkitzen ditut *coach* gisa egiten dudan lanean. Pertsona batek inor aintzat hartzeko zailtasunak dituenean, horri lotuta dauden usteak aztertzen ditugu *coaching*-saioretan. **5** Aintzat hartu ahal izango ditu besteak, eta horrek dakartzan ondorioak ebaluatu, eta hori behin eta berriro egitean, uste zahar horien ordeztu beste uste eraginkor eta indartsuago batzuk gailenduko dira.

Zergatik ez gara aintzat hartuak sentitzen?

Neure burua aintzat hartzeak baliotsua naizela onartzea dakar; neure baliabideak aintzat hartzen ditudala, eta neure nortasunarekin konforme nagoela esan nahi du. Hori gertatzen ez denean, berdindio besteak zer egiten duen: ni sekula ez naiz behar bezainbeste aintzat hartuak sentituko. Batzuek egoa elikatu behar dute, baina horrela, kanpoko onarpenaren menpe dagoen estimua edo balioa sortzen da. Pertsona horiek sufrimenduz betetako bizitza izaten dute, jaso ez dutenak eragindakoa erresuminak markatutako ibilbide profesionala, eta falta den horretan edo ez daukaten horretan jartzen dute arreta beti.

Besteen onarpena edo aintzatespena nola sentitzen dudanean ere nire itxaropenei lotuta dago. Ematen zaidana jasotzen baldin badakit, gauzek nola izan beharko luketen aurreikusitako gabe, aparteko itxaropenik izan gabe, nahi

dudana ez lortzeak dakarren frustrazioa saihestuko dut eta eman zaidana esker onez eta inbidiarik gabe jaso ahal izango dut, besteei zer ematen zaien begiratu gabe. **6**

Norberak aukera dezake nola sentitu

Aske gara errealitateari nola begiratu eta egoerei nola aurre egin aukeratu ahal izateko. Elkarrizketa batean biktima gisa azaltzeak, ezintasunak eta abarrek sufrimendua baino ez didate ekarriko, seguru. Beste pertsona batzuek, aldiz, beste egoera batzuk sortzen dituzte erakunde batean gogobetetasun handiagoz bizitzeko. Honelako usteak izaten dituzte: «bakoitzak ahalik eta ondoen egiten du lan, egoera kontuan hartuta»; «denek dute barruan noiz deskubrituko zain dagoen talentua». Pertsonengan gogobetetze eta inplikazio handiagoko lortzeko, aintzat hartzeko sistema bat ezartzea edo ez ezartzea erabaki dezake zure erakundeak. Zure lankideak, egunean zenbait ordu zure ondoan izango diren horiek, besteak behar bezala aintzat hartzeko gaitasuna duten edo ez duten pertsonak izan daitezke. **7**

Aintzat hartu besteak ahal duzun guztietan. Aintzat hartzeak korrante emozional positiboa sortzen du, aintzatespena jasotzen zein ematen duenarengan. Zintzoa eta benetakoa denean, ematea jasotzea bezalakoa da.

FERNÁNDEZ, Isabel. Administrazioa euskaraz, 2011ko urria. Egokitua.

- A. Ikuspegi hori, «nik egiten dudana besteak zer pentsatzen duen» oso garrantzitsua da norbere burua hobeto ulertzeko, norberaren trebetasunak ezagutzeko. Ikuspegi horretatik, aintzatespena ikasketa-tresna oso indartsua da.
- B. Kasu horretan ere, aintzat hartzeko moduko bertute bat duela jakinarazten diogu, baliotsua iruditzen zaigun bertute bat, hazten laguntzeko eta pertsona hobeak izateko eredugarria.
- C. Oso sustraituta dauden uste horiek zalantzan jartzeak ikuspegi-aldaketa ekarriko du, eta ondorioz, beste jokabide eta hitz egiteko modu batzuk ekarriko ditu.
- D. Egin proba zure familiarekin, etxean, kalean... Esparru horietan guztietan gauzak beste era batekoak direla egiaztatuko duzu, harremanak hobetu egiten direla, eta zeu ere hobeto sentitzen zarela.
- E. Dena dela, beti aukeratu ahal izango duzu nola sentitu. Zeuk erabakitzen duzu zer pentsamendu nagusitzen den zugan. Eta, zure pentsamenduek izan ezik, ezerk ezin zaitu mindu.
- F. Ikerketa hartako pertsonak oinarritzkoagoa zen zerbait nahi zuten: kontuan hartuak izatea. Sarritan ikusten da aintzat hartzea aipatzen duela jendeak, baina, azken batean, beste gauza bat esan nahi duela: hau da, ordainsari egokia jasotzea, komunikazioa edo errespetua.
- G. Pertsona batzuk, ordea, oso zorrotzak dira, eta sekula ez daude gustura jasotzen duten aintzatespenarekin; izan ere, inoiz ez dator bat eurek espero zutenarekin. Oso zaila da pertsona horiek gogobetetzea erakunde batean.
- H. Baina erakunde batean aintzatespen-adierazpenak eskasak direnean edo behar ez den bezala erabiltzen direnean, aldiz, harremanak gaiztotu egiten dira.

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7
Testu zatiak							

Sobera dagoen aukera:

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN

3. HE

IDAZMENA

Oharrak:

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun,
 - ideiak garbi adierazi dituzun,
 - euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU
ARIKETAK, HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN EGIN
BEHAR DITUZU**

■ 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** egin behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Amatasun-baja/Aitatasun-baja amaitu zaizu, eta lana eta familia bateragarri egin ahal izateko, hemendik aurrera ezinbestekoa duzu lan-murrizketa eskatzea.

Idatz iezaiozu eskutitza arduradunari lan-murrizketarako baimena eskatzeko. Azaldu lan-antolaketan sor daitezkeen arazoak eta proposatu irtenbideak.

■ **2. ariketa:** Idatzi **iritzi-artikulua herriko aldizkarirako.**

- Egoera kontuan hartu eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

Egoera: Alabak/Semeak ikasketak amaitu berri ditu eta ezinezkoa zaio hemen lana aurkitzea. Kanpora joatea erabaki du. Zuri soldata jaitsi eta lanaldia luzatu dizute, eta gainera, bikotekidearen enpresa itxi egin dute. Komunikabideetan egunean-egunean iruzur kasuren bat agertzen da, eta ez da konponbiderik ikusten.

Amorrotuta zaude eta herriko aldizkarian arazoari buruz idaztea pentsatu duzu.

Gaia: KRISIALDITIK IRTENGO OTE GARA? NOREN BIZKARRETIK?

Gazteek gurasoen laguntza behar dute aurrera ateratzeko. Emantzipatu ondoren ere, gurasoen etxera itzultzea «ohiko fenomeno» da gaur egun.



Herritar askok bokazio politikoa eta gizartearen mesederako zerbitzua non geratu ote diren galdetzen diote beren buruari.

- Langabezia dela eta, zure semeak/alabak kanpora joan beharraz, zer iritzi duzu?
- Krisiaren eraginez langileen lan-eskubideek okerrera egin al dute?
- Krisiaren aurrean politikariek eta Administrazioak eredugarri izan beharko lukete. Zertan huts egiten dute?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

3. HE / IRAKURMENA

- 1. ariketa: aukera anitzeko galderak
- Irakurgaia: « ETXE BIZITZA HUTSAK »

1.	C	6.	C
2.	A	7.	B
3.	C	8.	B
4.	B	9.	C
5.	A		

- 2. ariketa: hutsuneak bete
- Irakurgaia: « INTERNETEKO KOMUNIKAZIOEN SEGURTASUNA: KONFIDENTZIALTASUNA »

1.	D	2.	D	3.	A
4.	B	5.	D	6.	A
7.	C	8.	C	9.	C
10.	A	11.	B	12.	D
13.	C	14.	B	15.	A
16.	B	17.	A	18.	C

- 3. ariketa: sartu testu zatia dagokion hutsunean
- Irakurgaia: « BEHARREZKOA AL DA AINTZAT HARTZEA? »

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7
Testu zatiak	B	F	A	H	C	G	E

D aukera sobera dago.